

**Urteko Ohiko Batzar Nagusia
2022-02-23**

-Akta-

ORERETA IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEKO 2022 URTEKO OHIKO BATZAR NAGUSIAREN AKTA

2022ko otsailaren 23an, 18:30ean, hirugarren deialdian, Merkatuzar egoitzako Jose Luis Caso aretoan egindako bileraren akta.

Orereta Ikastola Kooperatiba Elkarteak 2022ko otsailaren 10ean egin zuen Urteko Ohiko Batzar Nagusirako deialdia, bazkideei gutuna bidalita eta entitatearen webgunean iragarrita.

Horien bidez, Kooperatiba Elkarteko lehendakari Itziar Navarro Pikabea andereak, Orereta Ikastola Kooperatiba Elkarteko Artezkaritza Kontseiluaren izenean, Urteko Ohiko Batzar Nagusira deitu zituen bazkideak, 17:30ean lehen deialdian, 18:00etan bigarrenean, eta, 18:30ean, hirugarren eta azken deialdian.

GAI-ZERRENDA

1. Batzar-akta onesteko bi bazkideren izendapena.
2. Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespentxostenaren berrespena.
3. Heziketaren kudeaketari buruzko txostenaren aurkezpena.
4. Plan Estrategikoaren aurkezpena.
5. Estatutuen moldaketa 11/2019 eta 5/2021 legeek araututakora: Batzar Nagusia eta Artezkaritza Kontseiluaren bilerak modu tematikoan egiteko aukera; organo sozial horien akordioak aurkaratzea; delituak ekiditeko eredu eta indarkeria sexistarik gabeko eremu izateko protokoloak ezartzea; lege zaharrari estatutuetan egindako aipamenak lege berrira eguneratzea.
6. 2020/2021 ekitaldiko kudeaketa soziala eta urteko kontuen onarpena, horrela badagokio. Emaizten aplikazioa.
7. Tarifak berrikusteko proposamena eta hala badagokio, onarpena.
8. Artezkaritza Kontseiluko kide berrien onarpena.
9. Egungo egoeraz eta etorkizunaz dugun ikuspegia.
10. Galde-eskaerak.

OHARRAK:

1. Bazkide guztiek dute Ikastolaren egoitzan eskuragarri (edo dohain helaraztea eskatzeko aukera) 2020/21 ekitaldiko kontuen txostena.
2. Bazkide guztiek dute eskura Estatutu moldaketarako txosten justifikagarria.
3. Bazkideek soilik parte hartu ahal izango dute Batzar Nagusian.
4. Batzarrera sartzeko, derrigorrezkoa izango da identifikazio-dokumenturen bat aurkeztea.
5. Estatutuen 24.3 artikulua araututakoaren arabera (legearekin bat etorriz), bazkide bat bere eta beste bi bazkideren ordezkari izango da, gehienez ere.

Deialdiari erantzunez, Batzarrean guztira 52 bazkidek hartu dute parte: erabiltzaileak 38 (bertaratuak 26 eta delegatuak 12) eta laguntzaileak 14 (bertaratuak 21 eta delegatuak 21). Hau da, guztira Kooperatiba osatzen duten 1.345 bazkideetatik %3,86.

1.- Batzar-akta onesteko bi bazkideren izendapena

Itziar Navarro Artezkaritza Kontseiluko lehendakariak hartu du hitza, eta ongietorria egin die bertaratuak guztiei. Gogoratu du urteko batzarra 2020-2021 ikasturtean gertatutakoen berri emateko eta hurrengo urteetako asmoak azaltzeko erabiliko dela.

COVID egoera dela-eta, oraindik erabateko normaltasunera iritsi ez garenez, aurten ere batzarra Merkatuzarren egin behar izan dugu, eta bertaratutako guztiei eskatu die denbora guztian musukoa ongi jarrita edukitzeko eta segurtasun tarteak errespetatzeko.

Ondoren, aurtengo batzarreko akta onesteko proposatu diren bi bazkideen izenak eman ditu: Eneko Mujika eta Ekaitz Auzmendi. Batzarrak ontzat eman du bi bazkide horien izendapena batzar-akta sinatzeko, aho batez.

2.- Aurreko Batzar Nagusiaren aktaren onespentxostenaren berrespena

Bazkide guztiek izan dute akta eskuragarri, deialdia egin ostean. Akta hori Ibai Carrillok eta Eunate Yerobik onartu zuten, bazkideen izenean, lehendakariarekin eta idazkariarekin batera. Eta, orain, onspen txostena berrestea eskatzen da. Bazkideek aldaketarik proposatu ez dutenez, bere horretan onartu da 2021 urteko batzar-akta.

3.- Heziketaren kudeaketari buruzko txostenaren aurkezpena

Egoitz Verdugo Orereta Ikastolako zuzendari pedagogikoak egin du aurkezpena. Hirugarren ikasturtez jarraian, COVID19 pandemiak bete-betean eragin du familien antolaketan, baita ikastolarenean ere; hala ere, azken urteetan hasitako eraldaketa pedagogikoaren biderei eutsi zaiola azpimarratu du.

Ikasturtea planifikatzeko garaian, lehentasunezkoa izan da pandemiak sortutako hutsuneak osatzea eta konpentsatzea, eta baliabide bereziak jarri ditugu:

1. Euskararen erabilera eta kalitatearekin lotutako ekintzak antolatzeko
2. Hezkuntza premia bereziei erantzuteko baliabide pertsonal gehiago kontratatzeke
3. Gela barruko errefortzuak indartzeko
4. Bikoizketa espezifikoak egiteko
5. Emozioen lanketa indartzeko
6. Zerbitzu eta eskolaz kanpokoei eusteko

Nabarmentzekoa da gure hezkuntza ereduaren eraldaketari jarraipena eman diogula. Etapa bakoitzak bere egitasmo pedagogikoa indartzen jarraitu du, eta, aldi berean, XXI. mendeko gizartea eraldatuko duten pertsonak hezteko Ikastola Ereduarekin koherente diren erabakiak hartu ditugu.

Ikastolak askotariko programak eta planak jarri ditu martxan azken ikasturteetan, helburu jakin batekin: ikasle guztien arrakasta lortzea, hau da, ikasle guztiek ahalik eta gehien garatzea haien gaitasunak eta ahalmenak. Hala, inklusiboagoa den ikastola bat eraikitzen jarraitzen dugu, eta lau elementu hauek nabarmendu ditu:

1. Inklusioa prozesu bat da, hain zuzen, ikasleen aniztasunari erantzuteko era desberdinen etengabeko bilaketa.
2. Inklusioak ikasle guztien presentzia, parte-hartzea eta arrakasta akademikoa bilatzen du.
3. Inklusio prozesuak parte-hartzeko eta ikasteko oztopoak identifikatu behar ditu, oztopo horiek hezkuntza eskubidea mugatu edota saihesten dutelako.
4. Inklusioak baztertzeko arriskuan dauden kolektiboengan fokua jartzen du, baina hezkuntza komunitate osoari begira dago.

Erronken artean bereziki aipatu du euskararen erabilerari eta kalitateari buruzko kezka. Erronka horri guztion artean erantzun behar diogu, eta hezkuntza-komunitate osoak (hezitzaileak, ikasleak eta familiak) inplikatu behar du egoera hori bideratzeko.

Amaitzeko, ikastola komunitatea sendotzen eta indartzen buru-belarri dabiltzan langile eta gurasoei eskerrak eman dizkie.

Jarraian, Oiartzoko zuzendari Gaskon Etxeberriak hartu du hitza. Ikasturte hasieran moldaketak egin behar izan zituzten pandemiak sortutako egoerari aurre egiteko (bi burbuilatan funtzionatu zuten). Lehentasuna jarduera presentziala mantentzea izan zen, eta, selektibitatearen atarian, tarteko agertokira pasatu ziren (gela erdia ikastolan eta beste erdia etxean).

Itxialdiaren ondorio akademikoak nabariak izan ziren, batez ere, 1. batxilergoan. Curriculum eta erritmoa egokitu behar izan zituzten, betiere bi ikasturteren ondoren Unibertsitatera Sartzeko Ebaluaziorako prestatu beharra kontuan hartuta. Bigarren batxilergoan, USEra ahalik eta ikasle gehien aurkezteko helburuari eutsi zioten (ikasleen %80 baino gehiago aurkeztu zen), eta emaitza onak lortu zituzten gainera.

Ikasturte berri honetan, erronka eta helburu berriak ditugu. Oiartzoren historian lehendabizikoz, 4 lerro izango ditugu 1. batxilergoan. Bestalde, Batxilab proiektua jarri da berriz ere martxan eta aurten hiru erronka egingo ditugu. Horrez gain, honako hauek ere aipatu ditu: plan estrategikoa berrikustea, etorkizunaz (pedagogia) hausnartzea, LOMLOEren ezartzea, batxilergoaren modalitate berria...

Etorkizunari esperantzaz eta ilusioz begiratzen diogu. Pandemia kontuak alde batera utzi eta gure helburu estrategikoei begira jartzeko aukera izatea espero dugu. Esaterako, nazioartera begira jartzea edo Oarsoaldean euskarazko batxilergoan erreferentziazko ikastetxea izatea.

4.- Plan Estrategikoaren aurkezpena

lazko Batzar Nagusian, Orereta Ikastola kooperatiba elkartearen datozen urteetako plan estrategiko berria osatzeko konpromisoa hartu genuen. Orduan esaten genuen plan horrek etorkizuneko proiektu sendo baten oinarriak ziurtatzen lagundu behar zigula: non gauden ikusi eta nora iritsi nahi dugun eta nola erabaki.

Ikasturtearekin batera heldu zitzaion prozesuari, Aurkene Redondo Enbor aholkularitzako arduradunak lagunduta. Zuzendaritza taldeak eta Artezkaritza Kontseiluko hiru gurasok osatu dute Plan Estrategikoa berritzeko lantaldea. Hilabete hauetan, lerro estrategiko nagusiak, helburu estrategikoak eta estrategiak definitu ditugu; eta, ondoren, estrategia horiek betetzeko ekintzak definitzen hasi gara, baita planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazleak ere (aginte koadroa).

Gaur Batzarrean aurkeztutakoa Plan Estrategikoaren lehen bertsioa da, aipatutako prozesuaren ondorioz, adostu ditugun sei lerro estrategikoak eta horietako bakoitzaren azpian definitu ditugun helburu estrategikoak. Helburu estrategikoak lortzeko estrategiak ere definitu ditugu, eta, batzarraren ostean, ekintzak zehazten hasiko gara.

Lerro eta helburu estrategikoak aurkeztu aurretik, eskerrak eman dizkie prozesu osoan parte hartu duten Ikastolako kideei: kontrasteetan parte hartu duten profesionaleri eta gurasoei eta, bereziki, lantaldeari: Anartz, Egoitz, Aurkene, Anjel, Irati, Kizkitza, eta Lide eta Xabi.

Hona hemen definitu ditugun sei lerro estrategikoak:

- LE1: Ikastolaren komunitateko kide izatearen sena berpiztu ikasle, guraso eta lankideengan
- LE2: Eraldaketa pedagogikoaren bitartez, ikastolaren hezkuntza eredu propioa garatu
- LE3: Antolaketa sistema parte hartzailea eta eraginkorra sendotu
- LE4: Lantaldearen bilakaera profesionalean eta pertsonalean indarra jarri
- LE5: Herrian eragile aktiboa izan
- LH6: Ikastolaren egonkortasuna bermatu

Esan bezala, lehen bertsioa dugu hau eta berriro ere komunitateko kideekin osatu nahi dugu. Horregatik, bozketara ekartzen duguna ildo nagusiak baino ez dira, ekintzak elkarrekin zehazten joango garelako.

Hala, bozketa egin da: Plan Estrategikoaren lehen bertsio honi bai ala ez. Emaizta:

52 boto, guztiak baiezkokoak. Beraz, aho batez onartuta gelditzen da 2022-2026 Plan Estrategikoa.

5.- Estatutuen moldaketa 11/2019 eta 5/2021 legeek araututakora: Batzar Nagusia eta Artezkaritza Kontseiluaren bilerak modu telematikoan egiteko aukera; organo sozial horien akordioak aurkaratzea; delituak ekiditeko eredia eta indarkeria sexistarik gabeko eremu izateko protokoloak ezartzea; lege zaharrari estatutuetan egindako aipamenak lege berrira eguneratzea.

Lehendakariak aipatu du 2019ko abenduaren 20an Eusko Legebiltzarrak Kooperatiba Lege berria onartu zuela, 11/2019 legea, ordura arteko legeria bateratu eta aldatzen duena. Lege hori 2020ko urtarrilean sartu zen indarrean, eta horrek eskatzen du Kooperatiba guztiek beren estatutuak aldatzea.

Gerora, 2021eko urriaren 7an, Eusko Legebiltzarrak 5/2021 Legea onartu zuen, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legea aldatzen duena. Hortaz, ikastolak estatutuak egokitu behar ditu, Kooperatiba Lege berriak eta hura aldatzen duen azken legeak xedatzen dutenera egokitzeko.

lazko Batzarrean dagoeneko bi aldaketa proposatu eta onartu genituen. Aurten, beste lau aldaketa egitea proposatzen dugu, estatutuak guztiz egokitzeko legeria berrira:

1. Batzar nagusia eta Artezkaritza Kontseiluaren bilerak modu telematikoan egiteko aukera (Artezkaritza Kontseilua hala egin izan dugu, COVIDarekin etxean egon garenean; Batzarra inoiz ez da egin, baina aukera hori edukita, onartzea proposatzen da, inoiz behar izanez gero, egin ahal izateko).
2. Organo sozial horien akordioak aurkaratzea: Artezkaritza Kontseiluan edo Batzar Nagusian erabakiak hartzeko orduan legeak ezarritakoa betetzen ez bada (esate baterako, bertaratuen quorumari edo erabakiak hartzeko gehiengoari dagokionez), bazkideen % 10ek eskatuta erabaki horren aurka jo daiteke. Edo ikusten bada organo horietan hartzen diren erabakiak ikastolaren interesen kontrakoak direla. Lege zaharrean bazkideen % 20k eskatu behar zuen, orain ehuneko txikiagoa da.
3. Delituak ekiditeko eredia eta indarkeria sexistarik gabeko eremu izateko protokoloak ezartzea: delituak ekiditeko eredia lantzeko konpromisoa hartu behar da (laster gauzatuko duguna) eta indarkeria sexistarik gabeko eremu izateko protokoloa dagoeneko badugu, langileen ordezkariekin adostua.
4. Lege zaharrari estatutuetan egiten zaizkion aipamenak lege berrira eguneratzea.

Hala, lau aldaketa hauek batera onartzeko bozketa egin da:

- Batzar Nagusia eta Artezkaritza Kontseiluaren bilerak modu telematikoan egiteko aukera
- Organo sozial horien akordioak aurkaratzea
- Delituak ekiditeko eredia eta indarkeria sexistarik gabeko eremu izateko protokoloak ezartzea
- Lege zaharrari estatutuetan egindako aipamenak lege berrira eguneratzea.

Guztia, deialdiarekin batera bazkideek eskuragarri izan zuten Txosten Justifikagarrian jasotako eran, Txostena akta honi erantsita gelditzen delarik.

Emaiza: 50 bai, 2 ez. Beraz, onartuta geratzen dira proposatutako aldaketa guztiak, Artezkaritzako idazkari eta lehendakaria ahalbideratuz akordio horiek Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharreko dokumentuak, bai publikoak zein pribatuak, sinatzeko.

6.- 2020/2021 ekitaldiko kudeaketa soziala eta urteko kontuen onarpena, horrela badagokio. Emaizten aplikazioa.

Anartz Muxikak, Orereta Ikastolako zuzendariak, Oiartzo eta Orereta Ikastolaren 2020-2021 ikasturteko kontuak azaldu ditu. Hiru ataletan banatu ditu kontuen inguruko gaiak:

- 2020-2021 ikasturteko kontuak azaltzea eta, egoki ikusiz gero, onartzea.
- 2021-2022 aurrekontua eta egungo egoera azaltzea.
- Horiek ikusita proposatzen diren tarifak azaltzea eta bozkatzea.

Oiartzoko kontuak Patronatuak onartzen baditu ere, modu informatiboan ekartzen dira Orereta Ikastolako Batzar Nagusira. Kontu hauek urtero ikuskaritza batek berresten ditu, eta, egindako auditoretzaren arabera, gaur hemen azaldu diren kontu hauek egoeraren irudi zehatza agertzen dute.

2020-2021 urteko kontuak: Oiartzo eta Orereta

Oiartzoko balantzean ez da aldaketa esanguratsurik egon. Emaiztei dagokionez, 2020-21 ikasturtean 202.558 euroko galerak izan genituen. Emaiza horri Haurtzarok %25ean eta Oreretak %75ean egingo dio aurre.

Guztira ia 140.000 euroko gastugehigarria izan genuen, hainbat arrazoi tarteko: IKTetan egindako inbertsioak, amortizazioak, ordezkotako irakasleen kontratazioa eta Lan Hitzarmenari lotutako beste ordainketa batzuk. Horietako gastu batzuk ez dira errepikatuko ikasturte honetan.

Bestetik, Oiartzok 2020-2021ean dagoeneko indarrean du tarifak igotzeko plana datozen urteetarako. Gastuen murrizketak eta kuoten gehitzeak galerak gutxitzea ekarriko du aurtengo ekitaldian.

Oreretari dagokionez, balantzean ez da aldaketa nabarmenik egon. Aipatzekoa da banketxeak kontu korranteetan ditugun saldoen gainean komisioak kobratzen hasi direla. Hala, komisio horiek ekiditeko, diru hori ezarpenetan sartzea erabaki zen: inbertsio fondoetan, bonoetan eta abar.

Funts propioak 4 milioi euro pasa ingurukoak dira, eta, beraz, egoera finantzario indartsua du ikastolak. 2020-21eko emaitza 135.000 euroko galerarekin itxi genuen. Hala ere, aurreikusitakoa baino emaitza hobea izan genuen, hainbat arrazoiengatik:

- 0-2 zikloan azken bi urteetan dirulaguntza osorik ari gara jasotzen.
- Zerbitzuetan uste baino emaitza hobea izan dugu (jangelan, txokoan, garraioan, garbiketan)
- IKTetan aurrekontutik behera gaude
- COVID dirulaguntza
- Errelebo-kontratuen dirulaguntza

Bestalde, gastu igoerak izan ditugu mantenu eta horniduretan, eta Oiartzoko galerek gora egin dute.

2021-2022 ikasturteko emaitzen aurreikuspena

Aurreikuspena da ikasturte honetan emaitzak orekatzetik gertuago ibiliko garela, hainbat arrazoi tarteko:

- Hezkoop dirulaguntza (450.000 €/ 8 urte) 62.000 €
- Oiartzo emaitza hobetzea 50.000 €

Erosketa eta Inbertsioak

- IKTetan gailuak erostea -15.000 €
- Plan Estrategikoa, aholkularitza... -20.000 €
- Baso Eskola, pedagogian beharrak (Irakurzaletasuna...)

Horren arabera, 2021-2022 ikasturteko emaitza-aurreikuspena -65.000 eurokoa da. Eta helburua 2022-2023rako oreka lortzea izango litzateke. Kontuan izan behar dugu ikastola irabazi asmorik gabeko erakundea dela.

Kontuen azalpena egin ondoren, 2020-2021 urteko kontuak (-135.430 €) onartu eta galera horiek balantzera eramateko bozketa egin da. Emaitza:

51 bai; 1 ez. Beraz, Orereta Ikastola Kooperatiba Elkarteko 2020-2021 urteko kontuak onartuta geratu dira, eta ekitaldiko galerak kontura eramango dira datozen urteetako irabaziekin konpentsatzeko.

7.- Tarifak berrikusteko proposamena eta hala badagokio, onarpena

Anartz Muxikak, Orereta Ikastolako zuzendariak, lehenik, testuingurua zein den aipatu du:

- Iaz Batzar Nagusiak galerak doitzeko plana jarri zuen martxan. Besteak beste, gastuen kontrola eta bi urtean kuotak igotzeko erabakia hartu zen. Iazko igoerak martxan jarri genituen eta aurtengoak faltako lirarteke.
- KPIa %6,5 igo da 2021ean.

Bestalde, aldeko ditugun faktoreak aipatu ditu:

- 2020-2021eko emaitzaren bilakaera egokia da. Martxan jarri zen OREKA ekonomikoa lortzeko plana eraginkorra izan da.
- Onartu berri zaigun Hezkoop dirulaguntza emaitzaren aldekoa izango da.
- Oiartzoko emaitzak ere hobera egingo du.

Horrez gain, aipatu du Ikastolen Elkartearen eta Hezkuntza Sailaren artean izandako negoziazioetan adierazi dutela datozen ikasturteetan dirulaguntzetan igoerak etor litezkeela.

Horiek guztiak kontuan hartuta, eta helburua oreka ekonomikoa lortzea izanik, aurten igoerarik ez egitea eta oraingo kuotei eustea da proposamena (aurreikuspen horiek nabarmen okerrera egin eta beharra egongo balitz, konpromisoa hartzen da aparteko batzar nagusi bat deitzeko tarifen berrikusketa egin ahal izateko).

Hala bozketa egin da. Emaitzak:

Baiezko botoak: 49,67; Ezezko botoak: 1. (Bazkide batek bilera utzi du) Beraz, tarifak bere horretan geratzea onartu da.

8.- Artezkaritza Kontseiluko kide berrien onarpena

Itziar Navarro lehendakariak azaldu du Artezkaritzaren osieran lau aldaketa izango direla. Artezkaritza utziko dute: guraso batek (Iñaki Erkiziak), Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen ordezkariak (Jone Briñasek eta Egoitz Sayarrek, hurrenez hurren), eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkariak (Izaskun Perezek).

Horien ordezeko izateko bazkide hauek proposatu ditu: Ane Igartzabal gurasoa (HHko gurasoa); LHko irakasleen ordezkari, Iñaki Zapiain (ordezkoa, Onintza Zabala); DBHko irakasleen ordezkari, Sara Aramendi (ordezkoa, Iker Goñi); eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari, Lourdes Saez de Eguilaz (ordezkoa, Begoña Zuloaga).

Horiekin batera, aurten ardura bukatzen zuten kide hauek berritzea proposatzen da: Xabier Gorrotxategi, Xabier Zabaleta, Eneritz Gurrutxaga eta Leire Mañes.

Artezkaritza uzten duten kideei (Iñaki, Egoitz, Jone eta Izaskun), Artezkaritzan sartuko direnei (Ane, Iñaki, Sara eta Lourdes) eta aurten ardura bukatu arren, Artezkaritzako kide bezala berrizendatuak izateko bere burua aurkezten duten kontseilariak, eskerrak eman dizkie.

Lehendakariak azpimarratu du Artezkaritza Kontseilua osatzen duten guztiak ahaleginduko direla ikastolaren oraina kudeatzen eta etorkizuna bideratzen, ahalik eta txukunen. Hauxe izango da Artezkaritza Kontseiluko talde berria:

Gurasoen ordezkariak:

- Itziar Navarro Pikabea
- Ane Igartzabal San Sebastian
- Arantxa Iragorri Saizar
- Eneritz Gurrutxaga Gogortza
- Xabier Gorrotxategi Zipitria
- Mertxe Arano Izquierdo
- Xabier Zabaleta Etxabe
- Lide Gabarain Torrecilla
- Mainer Gezala Sala

Langileen ordezkariak:

- Leire Manes Payo (ordezkoa: Maitane Martin Sagarzazu)
- Iñaki Zapirain (ordezkoa: Onintza Zabala Irastortza)
- Sara Aramendi Moreiro (ordezkoa: Iker Goñi Ramirez)
- Lourdes Saez de Eguilaz (ordezkoa: Begoña Zuloaga Elicegui)

Artezkari talde berria bozkatu da. Eraitza:

Baiezko botoak: 50,67. Aho batez onartuta gelditzen da Artezkari Kontseilu berria, Artezkari idazkari eta lehendakaria ahalbideratuz akordio horiek Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharreko dokumentuak, bai publikoak zein pribatuak, sinatzeko.

9.- Egungo egoeraz eta etorkizunaz dugun ikuspegia

Itziar Navarro lehendakariak egungo egoeraz eta etorkizunaz dugun ikuspegia azaldu du. Lehenik, COVID-19ak eragindako egoerari egin dio aipamena. Izan ere, 2021-2022 ikasturtea askoz ere lasaiago hasi bagenuen, egoera kontrolpean genuela zirudienean, azaro-abenduko buelta horretan, kutsatuen kopuruak gora egin zuen eta berriro etxeratzeak, gelak ixteak... izan genituen, protokoloa aldatu zen arte. Berriro ere, egoera nekagarria denontzat: ikasleentzat, profesionalentzat, familientzat.

Horregatik, eskerrak eman dizkie ikasleei, gurasoei, langileei eta bazkideei, egoera horri ahalik eta modurik egokienean erantzuten laguntzeagatik.

Jarraian, gure hezkuntza proiektuan garrantzitsuak diren aurrerapausoak eta erronkak aipatu ditu. Nolanahi ere, aurrerapauso hauen inguruko xehetasun gehiago ikus daiteke webgunean zintzilikatuta dagoen bideoan.

- Azken bi urtean gure proiektu kuttunenetako bat Baso Eskola izaten ari da. Urteetan gure Ikastola eremuan izan dugun altxorra berreskuratu eta ikasgela bihurtu dugu. Proiektu hori sendotzeko lanean ari gara eta datozen urteetan, gure proiektu pedagogikoan toki nabarmena hartuko du, zalantzarik gabe. Baina ez da ikastolak ingurumenarekiko duen jarreraren erakusle bakarra. Iazko batzarretik gaur egunera arte egin ditugun inbertsioetako batzuek ere ildo berari jarraitzen diote. Hala, ikastola BERDEA marrazten laguntzen digute, baso eskolarekin batera, Eskolako Agenda 2030eko ekimenetan parte hartzeak; ibilgailu elektrikoa erosteak; jangelan 0 km-ko eta sasoian sasoiko janaria prestatzeak; eta Goiener kooperatibaren eskutik, energia berriztagarrien aldeko apustua egiteak, bai kontsumoan eta baita ekoizpenean ere.
- Azken urteetan aniztasunaren eta inklusibitatearen inguruan ematen ari garen pausoak ere garrantzitsuak dira, bereziki DBHn. Ikastolak ikasle bakoitzari behar duen arreta eskaini nahi dio eta horretarako baliabideak jartzen eta eskuratzen ari da.
- LHko etapen antolaketa aldatu dugu: hiru etapetatik bira igaro gara. Etapa bakoitzak, orain, hiru maila hartzen ditu. Lehen etapen Haur Hezkuntzarekiko jarraipena bermatuko da eta bigarrenean, berriz, DBHrako prestatzen hasiko da, besteak beste, EKI proiektura hurbilduz eta ordenagailua gehiago erabiliz. Aldaketa honek etapen arteko loturak sendotzea eta koordinazioa hobetzea ekarriko du.
- Beste apustu garrantzitsu bat hizkuntza-proiektua berriro eta indartzea da, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta. Denok kezka ikusten dugu gure seme-alabek joera handia dutela gaztelaniara jotzeko eta, gainera, gero eta lehenago. Ikastolen ardatza euskara eta euskal kultura izanik, apustu hori indartu nahi dugu, ikasgelan eta ikasgelatik kanpo.

- Azkenik, gure hezkuntza proiektuan familien parte hartzea indartu nahi dugu. Familiek zeresan handia dugu bai ikastolako hezkuntza proiektuan, bai kooperatiba elkartearen bizitzan. Askotan, ordea, ez dugu asmatzen parte-hartze hori errazten eta bideratzen. Ditugun egiturak eta lan moldeak aztertu eta parte hartzeko bideak landu nahi ditugu, familien ekarpenak ere funtsezkoak direla uste dugulako. Horretarako, Gipuzkoako Bazkondearekin proiektu bat landuko dugu datozen hilabeteetan.

Erronka handiak ekarriko dizkigu etorkizunak. Hortxe dugu Hezkuntza Lege berria, 2023rako onartu nahi dena. Azken egun hauetan lege horretan jasoko diren gaien inguruan iritzia ematen ari dira askotariko eragileak: alderdi politikoak, sindikatuak, guraso elkarteak, euskararen arloko erakundeak... Argitzeko kontu asko dago, eta garrantzitsuak:

- o ikastetxeen izaera nola jasoko den (ikastolak ez dugu gure burua ikastetxe pribatutzat hartzen, herri ekimenetik sortu ginen, herritik sortuak eta herriarentzat).
- o hizkuntza ereduak nola geldituko diren (murgiltze ereduak gailenduko den eta euskarari dagokion tokia emango zaion, ikastetxe guztietan, ala ez).
- o ikastetxeek zenbateko autonomia izango duten erabakiak hartzeko (gaur egun, Batzar Nagusi hau da ikastolaren organo gorena, erabaki garrantzitsuenak onartu behar dituen).
- o egoera zaugarrian dauden ikasleak nola banatuko diren ikastetxeen artean (eta horretarako, nolako laguntzak jasoko diren, esate baterako, beka-sistemak...)
- o finantzaketa zenbatekoa eta zeren arabera izango den (gurasoek zerbait ordaindu beharko dugun).

Galdera horien guztien erantzunak baldintzatuko dute etorkizunean zer izango garen. Beraz, momentu garrantzitsua da, datozen urteetako hezkuntza nolakoa izango den erabakiko baita.

Ikastolen Elkartetik ere horren inguruko gogoeta bideratuko da ikastola guztietan, besteak beste, Ikastolen VII. Biltzarraz baliatuz.

Eta eztabaida horretan guztian, eragina izango du, halaber, demografiaren bilakaerak, eta, zehazki, jaiotza-tasaren beherakadak. Herri guztietan eragina berdina ez bada ere, kezka orokorra da. Gure herrian, esaterako, 2015etik 2021era % 41 egin du behera jaiotzen diren haurren kopuruak. Kopuru horiekin, ikastetxe askotan galduko dira lerroak. Inor ez dago horretatik salbu. Beraz, ahaleginak bikoiztu beharko ditugu familiak geure proiektura erakartzeko.

Ikastetxe guztiei eragingo dieten erronka horien ondoan, guk, Orereta Ikastolak, badugu hurbilagoko beste erronka bat ere: datorren urteko Kilometroak, Gipuzkoako ikastolen jaia, antolatzea. Artezkaritza Kontseiluan aztertu eta Ikastolako beste batzorde batzuetan kontsultatu ondoren, egokia iruditu zitzaigun 2023ko Kilometroak Errenteria-Oreretan antolatzeko eskaera egitea. Gipuzkoako gainerako ikastolek ontzat eman zuten eskaera hori eta, hala, joan den ikasturtearen amaieran jakinarazi zen Orereta Ikastolak antolatuko zuela Gipuzkoako ikastolen jaia, 2023an. Inguruko ikastolek berehala azaldu ziguten babesa, bereziki eta espreski, Oiartzungo Haurtzaro Ikastolak.

Kilometroak jaia, gainera, Ikastolaren 60. urteurrenarekin batera iritsiko da.

Erronka ugari, zalantzarik gabe, duela ia 60 urte sortu zen egitasmo honen etorkizuna bermatzeko. 60 urte hauetan, ehunka pertsonaren ametsak egia bihurtu dira. Guri dagokigu apustu horri segida ematea. Arduraz, ilusioz eta gogoz.

Amaitzeko, esker ona adierazi die ikastolako profesional guztiei, egunez egun egiten duten lanarengatik, urte osoan zehar batzordeetan eta lantaldeetan lanean aritzen diren guraso guztiei, eta, noski, gugan konfiantza jartzen duten familia guztiei.

10.- Galde-eskaerak

Ez da galde-eskaerarik egon.




Eneko Mujika Rezola
NAN: 44158047W
Bazkide aukeratua



Ekaitz Auzmendi Calvo
NAN: 44139662V
Bazkide aukeratua



Xabier Zabaleta Etxabe
NAN: 34093984A
Idazkaria



Itziar Navarro Pikabea
NAN: 34099745Z
Lehendakaria


Errenteria-Oreretan, 2022ko otsailaren 23an

ORERETA IKASTOLAREN ESTATUTU MOLDAKETA ETA ALDAKETAREN TXOSTEN JUSTIFIKAGARRIA

ORERETA Ikastola Kooperatiba Elkarteko Artezkaritza Kontseiluak hurrengoko akordioa adostu du aho batez: bere Estatutu Sozialak 11/2019 eta 5/2021 Legeek (Euskadiko Kooperatibena), araututakora moldatzea, eta horrela dagokion ataletan aurretik zegoen testua hobetzea –aldatzea. Guztia, Batzar Nagusiaren aurrean moldaketa eta aldaketa horiek aurkeztekotan eta, horrela badagokio, Batzar Nagusiak Estatutu Sozial barriak onartu ahal izateko eta, ondorioz, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan horien inskribapena eskatzeko.


Gu zti hori oinarritzat hartuz, Txosten Justifikagarri honekin batera, jarraian, proposaturiko aldaketak:

ARTIKULUA	GAUR EGUNGO TESTUA	PROPOSATURIKO TESTUA
1. IZENA	ORERETA IKASTOLA, KOOP. E. izena duen gizarte- ekimenezko irakaskuntza-kooperatiba bat eratu da Orereta/Errenterian (20100) (Gipuzkoa), honoko hauei guztiei lotzen zaiena: Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen Printzipioei eta Xedapenei, bai eta ekainaren 29ko 1/2000 Legeak eta abenduaren 1eko 8/2006 Legeak ezartzen dituzten haren modifikazioei ere -legeok Eusko Legebiltzarrak onetsiak izaki-, aplikagarriak izan daitezkeen gainontzeko lege-aginduei, bai eta honoko Estatutuei ere.	ORERETA IKASTOLA, KOOP.ELK. izenarekin, Orereta/Errenterian (Gipuzkoa), Irakaskuntza Kooperatiba bat eratu zen, Euskadiko Kooperatiben 11/2019 ETA 5/2021 Legeen, Printzipio eta Xedapenen arabera, eta ezarri beharreko gainerako aginduen eta estatutu hauetan eta, dagokionean, barne araudian xedatutakoaren arabera.
9. ARTIKULUA. ONARPENARI AURKA EGITEA	BAT.- Ebazpena onarpenaren aurkakoa bada, eta arrazoituta badago, eskatzaileak errekurtsua jarri ahal izango du Batzar Nagusiaren aurrean, ezezko erabakiaren jakinarazpenetik hasi eta hogeiei eguneko epean. BI.- Era berean, onartzeko erabakiaren aurka ere egin daiteke Batzar Nagusian, jakinarazten denetik hogeiei eguneko tartean, bazkideen % 20k eskatzen badu. Aurreko paragrafoetan aipatutako errekurtsuak hurrengo Batzar Nagusian, isilpeko bozketaren bidez, ebatziko dira, 4/1993 Legearen 20. artikuluko 4 eta 5. ataletan aurreikusitakoari jarraiki.	Bat. Ukatzeko erabakiaren aurka errekurtsua jarri ahal izango du eskatzaileak Batzar Orokorraren aurrean, hogeiei eguneko epean, ukatzeko erabakia jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Egiten den lehenengo Batzar Orokorra, isilpeko bozketa bidez, ebatzi beharko du. Bi kasuetan, nahitaezkoa izango da interesdunari alde aurretik entzutea. Bi. Onartzeko erabakia Batzar Orokorren aurrean errekurritu ahal izango da, gutxienez bazkideen %10ek eskatuta, onartzeko erabakia jakinarazten denetik hogeiei eguneko epean. Lan bazkidea bada, onartzeko erabakia aurkaratu ahal izango da, gainera, gutxienez lan bazkideen %20k eskatuta. Batzar Orokorra egiten duen lehen bileran ebatziko du, isilpeko bozketa



		bidez. Nahitaezkoa izango da interesdunari alde aurretik entzutea.
14. ZAZPI. ARTIKULUA. INFORMAZIO-ESKUBIDEA	ZAZPI.- Eskaera ausartegia edo oztopatzailea denean, edo informazio hori emateak kooperatibaren interes legitimoak arrisku larrian jartzen dituenean soilik egin diezaiokete uko Artekarrizta Kontseiluko kideek eskatutako informazioa emateari. Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 49. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera, ukazio horri aurka egin dakiokete. Bidegabekeriarik eta kalterik gerta ez dadin, eskatutako datu guztiak kooperatibaren egoitza sozialean emango dira, Artekarrizta Kontseiluaren Presidentearen edo Idazkariaren aurrean.	Zazpi. Kontseilu Errektoreak informazio eskaera ausarkeriaz edo oztopatzeko asmoz eginga denean edota informazioa emateak Kooperatibaren interes legitimoak arriskuan jartzea dakarrenean baino ezingo du ukatu informazioa. Hala ere, ez da salbuespen hori egingo ukatutako informazioa Batzar Orokorraren ekitaldian eman behar denean eta informazio eskaera bertaratutako eta ordezkaturako botoen erdiek baino gehiagok babesten dutenean, eta, gainerako kasuetan, hala erabakitzen dutenean Batzar Orokorrak, informazioa eskatu duten bazkideek jarritako errekurtsuaren ondorioz. Nolanahi ere, eskatzaileek Kontseilu Errektorearen ukoa aurkaratu ahal izango dute, Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen, abenduaren 20koaren, 25. eta 51. artikuluetan xedatutakoaren arabera.
16. Lau ARTIKULUA. BAZKIDEAREN NAHITAEZKO BAJA	LAU.- Artekarrizta Kontseiluko kideek kalifikazioari edo ondorioei buruz hartutako erabakiarekin ados ez dagoen bazkideak Batzar Nagusiaren aurrean errekurritu ahal izango du, Euskadiko Kooperatibei buruzko 4/93 Legearen 28. artikuluan xedatutakoari jarraiki.	Lau. Artekarrizta Kontseiluko kideek kalifikazioari edo ondorioei buruz hartutako erabakiarekin ados ez dagoen bazkideak Batzar Nagusiaren aurrean errekurritu ahal izango du, Euskadiko Kooperatibei buruzko 11/2019 Legearen 27.5 artikuluan xedatutakoari jarraiki.
19.Hiru ARTIKULUA. ZIGORTZEKO PROZEDURA	HIRU.- Hutsegite larri eta oso larrien kasuan, Artekarrizta Kontseiluaren erabaki zigortzaileak Batzar Nagusian errekurritu daitezke, bere komunikaziotik 30 eguneko epean. Afektatuek erresoluzio horiei aurka egiteko aukera izango dute, 4/1993 Legearen 39. artikuluan ikus daitekeen prozesu-tramitearen bidez.	Hiru. Hutsegite larri eta oso larrien kasuan, Artekarrizta Kontseiluaren erabaki zigortzaileak Batzar Nagusian errekurritu daitezke, bere komunikaziotik 30 eguneko epean. Afektatuek erresoluzio horiei aurka egiteko aukera izango dute, 11/2019 Legearen 41. artikuluan ikus daitekeen prozesu-tramitearen bidez.
20. Bost ARTIKULUA. KANPORATZEA	BOST.- Batzar Nagusiak berretsi ondoren, 4/1993 Legearen 39. artikuluan araututako prozesu-bidearen arabera, kanporatze-erabakiari aurka egin ahal izango zaio.	Bost. Batzar Nagusiak berretsi ondoren, 11/2019 Legearen 41. artikuluan araututako prozesu-bidearen arabera, kanporatze-erabakiari aurka egin ahal izango zaio.



<p>24. Bat eta bi BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONA-MENDUA</p>	<p>BAT.- Batzar Nagusia egoitza soziala dagoen herrian edo, justifikatutako arrazoirik izanez gero, Artezkaritza Kontseiluko kideek izendatutako beste edozein lekutan egingo da, unibertsala denean izan ezik.</p> <p>BI.- Batzar Nagusia balioz eratuta geratuko da, lehen deialdian botoen gehiengoa bertan edo ordezkaturia dagoenean, eta bigarren deialdian, gutxienez bazkideen botoen % 10 bertan edo ordezkaturia dagoenean, edo 100 boto daudenean.</p> <p>Batzar Nagusira joateko eskubidea izango dute, deialdia erabaki zen egunean bazkide-izaera zuten bazkideek.</p>	<p>Bat. Batzar Orokorra era presentzian edo ez-presentzian egin ahalko da:</p> <p>a) Era presentzian denean, unibertsala ez bada behintzat, sozietatearen egoitza dagoen herrian egin beharko da, edo Kontseilu Errektoreak erabaki duen beste edozein lekutan, betiere hori justifikatzen duen arrazoirien bat dagoenean.</p> <p>Geografikoki urruti dauden bazkideek parte hartu ahal izango dute, betiere horretarako borondatea adierazten badute eta Kontseilu Errektoreak aurrez onartzen badu, eta, horretarako, irudiaren eta soinuaren bi noranzko eta aldibereko komunikazioa ahalbidetuko da, ikusizko, entzumenezko eta ahozko interakzioa ahalbidetuko duen bideokonferentzia edo antzeko sistema baten bidez.</p> <p>Kooperatibak boto digitalerako sistema bat erabili ahal izango du bertan dauden zein ez dauden pertsonentzat, botoaren eraginkortasuna eta konfidentzialtasuna bermatuko duena, botoa isilpekoa bada.</p> <p>b) Era ez-presentzian danean, Batzar Orokorra, osorik edo partzialki, modu telematikoan edo teknologikak aukera ematen duen antzeko beste edozein sistemaren bidez egin ahalko da. Edozein kasutan, administrazio-organoak ezarriko du modu ez-presentzian bertaratzeko sistema eta bermatuko du:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Deialdian sartzekoak diren pertsona guztiek izatea bilerara bertaratzeko aukera. • Bazkideen nortasuna egiaztatzea. • Boto-eskubidea egikaritzea eta, hala aurreikusita dagoenean, botoaren konfidentzialtasuna. • Komunikazioa bi norabideetako izatea eta irudiaren eta soinuaren aldi berekoa, eta ikusizko, entzunezko eta hitzezko interakzioa. • Hala adierazten duten bazkideek modu presentzian parte hartu ahal izatea Batzarrean. <p>Bi. Batzar Orokorra baliozkoa izango da, lehen deialdian, baldin eta bildutako edo ordezkaturitako bazkideek botoen gehiengoa bertan edo ordezkaturia badago; eta bigarren deialdian, baldin eta bildutakoak edo</p>
---	--	---


Xabier

Itziar






	<p>Bl.- Honako hauek daude legitimatuta baliorik gabeko erabakiei aurka egiteko: a) bazkide guztiak, b) Artekazkaritza Kontseiluko kideak, c) Zaintza Batzordeko kideak, d) legezko interesik duen beste edonor.</p> <p>Aurka egiteko ekintzak urtebetean balioa galduko du.</p> <p>HIRU.- Honako hauek daude legitimatuta balio gabetu daitezkeen erabakiei aurka egiteko: a) Batzar Nagusiaren aktan erabakiarekin ados ez zeudela jasotzea eskatu zuten bertaratutako bazkide guztiak, b) bertaratu ez zirenak, eta legez kanpo, botoa eman gabe geratu zirenak, c) Artekazkaritza Kontseiluko kideak, d) Zaintza Batzordeko kideak.</p> <p>Aurka egiteko ekintzak 40 egunetan balioa galduko du.</p> <p>Puntu honetan eta aurrekoan aipatutako aurka egiteko epeak kontatzen hasiko dira erabakia hartu zen egunetik aurrera, edo inskribatzekoa izanez gero, Kooperatiben Erregistroan inskribatu zen egunetik aurrera.</p> <p>LAU.- Aurka egiteko ekintzak 4/1993 Legearen 39-7 artikuluan ezarritakoaren arabera bideratuko dira.</p> <p>BOST.- Aurka egiteko ekintza berresten duen epaiak bazkide guztiengan izango ditu ondorioak, baina aurka egindako erabakiaren ondorioz, hirugarren batzuek fede onez eskuratutako eskubideak ez ditu ukituko; erabaki hori Kooperatiben Erregistroan inskribatuta badago, epaiak indargabetuta utziko du.</p>	<p>iraungiko da, salbu eta erabaki horien karia edo edukia ordena publikoaren aurkakoak direnean.</p> <p>Hiru. Artikulu honetan xedatutako iraungitze epeak akordioa hartzen den egunetik aurrera zenbatuko dira, edo, inskriba badaiteke, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatzen den egunetik aurrera.</p> <p>Lau. Oro har, aurkaratze prozedura Kapital Sozietateei buruzko Legean ezarritako arauetara egokituko da, salbuespen honekin: demanda idazkian aurkaratutako erabakia eteteko eskatzen bada, eskatzen duena Zaintza Batzordea edo gutxienez boto kopuruaren %10 ordezkatzen duten bazkideak izan beharko da, 50 bazkide baino gehiagoko kooperatibetan, %15 10 eta 50 bazkide arteko kooperatibetan, eta %20 10 bazkide baino gutxiagoko kooperatibetan.</p> <p>Bost. Aurkaratze akzioa baiesten duen epaiak ondorioak izango ditu bazkide guztien aurrean, baina ez die eragingo fede oneko bazkide ez diren hirugarrenek aurkaratutako erabakiaren ondorioz eskuratutako eskubideei. Aurkaratutako erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuta badago, epaiak inskripzio horren ezereztea aginduko du.</p>
<p>30. Hiru ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA</p>	<p>HIRU.- Artekazkaritza Kontseilua balioz eratuta geratuko da bilerara kide-kopuruaren erdia baino gehiago bertaratzen denean. Norberak bertaratu beharko du, ordezkapena ez da zilegi, eta erabakiak bertaratutako administratzaileen gehiengo sinplez hartuko dira. Kontseiluko kideek boto bana izango dute.</p>	<p>Hiru. Kontseilu Errektorea baliotasunez eratzeko bilerara gutxienez bere kideen erdiak baino gehiagok joan beharko du. Zuzenean joan beharko da bileretara, eta ezingo da asistentzia ordezkatu, eta erabakiak bertaratutako eta urrundik parte hartzen ari diren kontseiluko kideen gehiengo soilez hartuko dira. Boto zuriak eta abstentzioak ez dira zenbatuko. Kontseilari bakoitzak boto bat izango du.</p>




	Lehendakariaren botoak ebatziko ditu gertatzen diren berdinketak.	Kontseilukideak bilerara bideokonferentzia bidez edo antzeko beste sistema baten bidez bertaratzeko eskubidea izango dute, baldin eta aukera ematen badu irudiaren eta soinuaren bi noranzko eta aldibereko komunikazioa izateko, eta ikusizko, entzunezko eta ahozko interakzioa izateko.
33. ARTIKULUA. ERABAKIEN AURKA EGITEA	<p>BAT.- Artezkaritza Kontseiluaren erabakiei aurka egin ahal izango zaie, betiere Legearen aurkakoak izanez gero, Estatutuei kontra egiten badiete, edo bazkide baten edo gehiagoren, edo besteren baten mesedetan, Kooperatibaren interesei kalterik eragiten badiete. Legearen kontrako erabakiak baliogabeak izango dira; goian aipatutako gainerako erabakiak baliogabetu daitezke.</p> <p>Erabaki bat baliogabetu baldin bada, edo ordezkaturia izan baldin bada, ezin izango da erabaki horren aurka egin.</p> <p>BI.- Honako hauek daude legitimatuta baliorik gabeko erabakiei aurka egiteko:</p> <p>a) Edozein bazkide, horren berri izan ondoren 60 eguneko epean, eta erabakia hartu zenetik urtebete igaro ez bada,</p> <p>b) Zuzendaritza Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kideak, erabakia hartu zenetik 60 eguneko epean.</p> <p>HIRU.- Honako hauek daude legitimatuta baliogabetu daitezkeen erabakiei aurka egiteko:</p> <p>a) bazkideen botoen % 10 ordezkatzeko duten bazkideak, BI a) atalean aurreikusitako epean,</p> <p>b) Zuzendaritza Kontseiluko eta Zaintza Batzordeko kideak, BI b) ataleko epean.</p> <p>LAU.- Aurka egiteak aurreikusitako ondorioak izango ditu, eta Estatutu hauetako 27. artikuluko LAU atalean, Batzar Nagusiko erabakiei aurre egiteko xedatutakoari jarraiki bideratuko da.</p>	<p>Bat. Kontseilu Errektorearen erabakiak aurkaratu ahal izango dira baldin eta Legearen edo Estatutu Sozialen aurkakoak badira, edo bazkide baten edo batzuen edo bazkide ez diren pertsonen mesedetan, kooperatibaren interesak kaltetzen badituzte.</p> <p>Ez da egokia izango ondorioz gabe utzi den edo beste akordio batek baliozkotasunez ordeztu duen akordio bat aurkaratzea.</p> <p>Bi. Honako hauek legitimatuta daude aurkaratze akzioak gauzatzeko:</p> <p>a) Edozein bazkide, horren berri izan eta 60 eguneko epean, baldin eta erabakia hartu zenetik urtebete igaro ez bada.</p> <p>b) Kontseilu Errektoreko eta Zaintza Batzordeko kideak, erabakia hartu eta 60 eguneko epean.</p> <p>Hiru. Aurkaratzeak xedatuta dauden ondorioak izango ditu, eta Batzar Orokorraren erabakiak aurkaratzeko erabakitako bidetik izapidetuko da.</p>
35. ARTIKULUA. ZAINZA-BATZORDEA	<i>Gaur egun ez dira existitzen bi atal horiek, beraz gehitu egiten dira.</i>	Zortzi. Zaintza Batzordea balioz eratu da bilerara kideen erdiak baino gehiago agertzen direnean. Berataratzea



		<p>pertsonala eta ordezkazina izango da, eta bileran dauden Zaintza Batzordeko kideen botoen erdiak baino gehiagok hartuko ditu erabakiak. Kontseiluko kide bakoitzak boto bat izango du. Lehendakariaren botoak ez ditu ebatziko berdinketak. Boto zuriak eta abstentzioak ez dira zenbatuko.</p> <p>Geografikoki urruti dauden Zaintza Batzordeko kideek parte hartu ahal izango dute, baldin eta erabakiak bideokonferentzia bidez edo antzeko sistema baten bidez baliozkotasunez hartzeko borondatea adierazten badute, irudiaren eta soinuaren bi norabideko eta aldibereko komunikazioa eta ikusizko, entzutezko eta ahozko interakzioa ahalbidetuz.</p> <p>Zaintza Batzordeko kideren batek organo horren bileretan parte hartzen badu eta bere borondatea aurreko paragrafoan adierazitako moduan adierazten badu, idazkariak berariaz jasoko du aktan kidearen identitatea eta horretarako erabilitako bidea, erabakiak baliozkotasunez hartzeko eskatzen diren gainerako baldintzekin batera.</p> <p>Bederatzi. Bileraren akta lehendakariak eta idazkariak sinatuko dute, eta labur-labur jasoko dira eztabaidak, erabakien testua eta bozketen emaitzak, eta akta liburuan jasoko da.</p>
<p>46. ARTIKULUA. SOBERAKINEN BANAKETA</p>	<p>Batzar Nagusiak erabakiko du soberakin garbien banaketa, betiere aurreko ekitaldietako galerak orekatuta eta dagozkion zergak kenduta, honako arau hauek jarraituz:</p> <p>a) Nahitaezko Erreserba Fondora, eta Heziketa eta Kooperatiba Sustapeneko Fondora zenbateko orokorraren ehuneko hogeita hamar gutxienez bideratuko da; gutxienez ehuneko hamar gordeko da Heziketa eta Kooperatiba Sustapeneko Fondorako, eta ehuneko hogeita hamar, Nahitaezko Erreserba Fondorako.</p> <p>Nahitaezko Erreserba Fondoko zenbatekoa kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamarrera heltzen ez den bitartean, Heziketa eta Kooperatiba Sustapeneko Fondorako ezarritako gutxieneko</p>	<p>Bat. Soberakin garbiak, behin aurreko ekitaldietatik zetozen galerak konpentsatzeko erabiltzen diren zenbatekoak kenduta eta bidezko zergak ordainduta, soberakin erabilgarriak izango dira.</p> <p>Bi. Batzar Orokorrak soberakin erabilgarriak banatuko ditu, honako arau hauei jarraituta:</p> <p>a) Gutxienez %30 Nahitaezko Erreserba Funtsera eta Kooperatiba Sustapen eta Hezkuntzarako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako Derrigorrezko Kontribuziora (aurrerantzean, Derrigorrezko Kontribuzioa) bideratuko da. Gutxienez %20, Nahitaezko Erreserba Funtsera bideratu beharko da, eta gutxienez %10, Derrigorrezko Kontribuziora.</p> <p>b) Derrigorrezko Kontribuziora bideratu beharreko gutxieneko ehuneko erdira murriztu ahal izango</p>




	<p>ekarpena erdira murriztu ahal izango da.</p> <p>b) Gainerako soberakinak Borondatezko Erreserba Fondo Banaezina sortzeko bideratuko dira.</p>	<p>da, Nahitaezko Erreserba Funtsa kapital sozialaren %50era iritsi arte.</p> <p>Hiru. Gainerakoa Borondatezko Erreserba Funts Banaezina sortu edo handitzeko.</p>
<p>47. ARTIKULUA. NAHITAEZKO FONDOAK</p>	<p>BAT.- Nahitaezko Erreserba Fondon ezin da bazkideen artean banatu. Estatutu hauetan aurreikusitako soberakinen kargurako ekarpenez gain, bazkidearen baja-kasuengatik ekarpenen kenkariak eta sartzeko kuotak ere fondo horretarako gordeko dira.</p> <p>BI.- Heziketa eta Kooperatiba Sustapeneko Fondon bahiezina da, eta horretara bideratuko dira diziplinabidearen arabera bazkideei ezarritako ekonomia-zigorren zenbatekoak, baita Estatutu hauetan aurreikusitako emaitza erabilgarrien konturako ekarpenak ere.</p>	<p>Bat. Nahitaezko Erreserba Funtsa Kooperatiba sendotu, garatu eta bermatzeko da, eta ezin da banatu bazkideen artean.</p> <p>Aurreko artikuluan aurreikusitako hornidurez gain, funts honetara bideratuko dira, nahitaez, bazkideek baja ematen dutenean Kapital Sozialari egindako nahitaezko ekarpenari kentzen zaion kopurua eta sarrera kuotak.</p> <p>Bi. Derrigorrezko Ekarpene ezin da enbargatu eta bere hornidurak balantzearen pasiboan jasoko dira, beste partida batzuekiko berezita.</p> <p>Aurreko artikuluan xedatutako zuzkidurez gain, bazkideei ezarritako zehapen ekonomikoen zenbatekoa ere derrigorrez bideratuko da Derrigorrezko Kontribuzio horretara.</p> <p>Hiru. Derrigorrezko Kontribuzioa aplikatzeko jarraibide orokorrak Batzar Orokorrak finkatuko ditu ekitaldi bakoitzerako berariazko araudia erabilia eta Kontribuzioaren zenbatekoa interes publikoko xede hauetako batera edo batzuetara bideratuko da:</p> <p>a) Bere bazkideak kooperatibismoaren, jarduera kooperatiboaren eta lanpostuarekin lotu gabeko beste gai batzuen inguruan prestatu eta heztera.</p> <p>b) Kooperatiben arteko harremanen sustapenera, barne hartuz sustapenerako, asistentziarako, zuzendaritza komunerako edo kooperatiben arteko laguntza jardueretarako sortutako erakundeetan parte hartzeak sortzen dituen gastuen estaldura.</p> <p>c) Hezkuntza eta kultura sustapenera, sustapen profesional eta asistentzialera, eta baita kooperatiba kokatuta dagoen gizarte ingurunean eta gizartean orokorrean kooperatibismoaren ezaugarriak hedatzera ere.</p> <p>d) Euskararen erabilera sustatzera.</p> <p>e) Enpresa kooperatibo berriak sustatzera, euskal kooperatiben mugimenduak bultzatutako irabazi</p>

Xabi

Itziar




		<p>asmorik gabeko erakunde bati diru ekarpenak eginez. Bazkideak eta langileak prestatzera eta heztera, kooperatiba sozietateetan politika eraginkor bat susta dezaten emakumeen eta gizonen berdintasunean urratsak emateko.</p> <p>Lau. Kooperatibak adierazitako interes publikoko helburuetarako erabili ez den Derrigorrezko Ekarpen horren zenbatekoa, soberakinaren banaketa onartu eta hurrengo ekitaldian, irabazi asmorik gabeko erakundeei eman beharko zaie, aplikatzeko den indarreko legeriak Derrigorrezko Ekarpen honetarako ezarritako interes publikoko helburuetara bideratu dadin.</p>
48.Bi ARTIKULUA. GALERAK EGOZTEA	<p>Bi.- Galeren egozketa honako arau hauen arabera izango da, legeak ezarritako mugen barruan:</p> <p>a) Lehenik, Batzar Nagusiak onartzen duen zenbatekoa Borondatezko Erreserba Fondoetara egotziko da.</p> <p>b) Bigarrenik, erabilgarri dauden Eguneratze Fondoetara egotziko da.</p> <p>c) Hirugarrenik, legeak ezarritako gehieneko mugen barruan, Nahitaezko Erreserba Fondora egotziko da.</p> <p>d) Egozteke gera daitezkeen gainerako galerak bazkide erabiltzaileen artean banatuko dira, ikasturtean bazkide erabiltzaileen seme-alaba bakoitzak jasotako eskola-orduen arabera.</p>	<p>Bi. Batzar Orokorrak, galerak egozteko, honako arau hauei jarraituko die:</p> <p>a) Balantzeak erregularizatzeko funtsetik ahal den zenbatekoa erabili ahalko da.</p> <p>b) Borondatezko Erreserba Funtsetara, baleude, galera guztiak egotzi ahalko dira.</p> <p>c) Nahitaezko Erreserba Funtsetara egotzi ahalko zaio, gehienez ere, soberakin positiboak izan diren azken bost urteetan legez nahitaezkoak diren funtsetara bideratutako batez besteko ehuneko, eta eraketa bost urte horiek baino lehenagokoa ez bada, eratu zeneko data hartuko da abiapuntutzat. Halere, baldin eta Nahitaezko Erreserba Funtsetara kooperatibaren kapital sozialaren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago bada, galerak konpentsatzeko ere erabili ahal izango da ehuneko horretatik gorako zenbatekoa.</p> <p>d) a) b) eta c) puntuetan esandako eran konpentsatu ez den zenbatekoa bazkideei egotzi ahalko zaie jardueran arabera, proportzionalki. Ekitaldian zehar bazkide erabiltzaile bakoitzak kooperatibara bidaltzen duen ikasle kopurua izango da neurria zehazteko bazkide erabiltzaileek jarduera kooperatibizatuan izan duten parte hartzea.</p>
AZKEN XEDAPENAK.	<p><i>Gaur egun ez da existitzen, beraz gehitu egiten da.</i></p>	<p>Kontu Auditoretzaren Legean edo haren garapen arauetan xedatutakoaren arabera urteko kontuak kanpo auditoretzapean jartzera behartuta</p>



<p>LEHENA. Letradu aholku emailea</p>		<p>badago kooperatiba, Kontseilu Errektorearen erabakiz, letradu aholku emaile bat izendatu beharko du.</p> <p>Letradu aholku emaileak sinatuko ditu Batzar Orokorrak edo Kontseilu Errektore Kontseiluak hartu eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskriba daitezkeen akordioak, irizpena eman ez zuzenbidearen arabera direla.</p> <p>Akordio horien ziurtagirietan jasota geratuko da letradu aholkulariaren irizpena duten akordio horiek akta liburuan jasota daudela.</p> <p>Letradu aholkulariak erantzukizun zibila izango du kooperatibaren, haren bazkideen eta bazkide ez diren hirugarren pertsonen aurrean zabarkeria profesionala egon bada.</p> <p>Egiteko horretan jardutea bateraezina izango da zuzendari gerente edo Kontseilu Errektoreko kide izatearekin.</p> <p>Kooperatibaren eta letradu aholkulariaren arteko harremana honako hau izan daiteke: profesional liberal gisa zerbitzuak alokatzekoa, lan kontratu bati lotutakoa edo sozietate arlokoa, kooperatibako lan bazkide gisa.</p>
<p>AZKEN XEDAPENAK.</p> <p>BIGARRENA. Delituak prebenitzeko eredia eta segimendua egiteko mekanismoak.</p>	<p><i>Gaur egun ez da existitzen, beraz gehitu egiten da.</i></p>	<p>Bat. Kooperatibak Delituak Prebenitzeko Eredu bat edukiko du, eta haien segimendua egiteko mekanismo bat ezarriko du.</p> <p>Bi. Eredu horren edukia Kontseilu Errektoreak onartuko du, eta Batzar Orokorrak berretsiko.</p> <p>Hiru. Delituak prebenitzeko eredia eta eredu horrek funtzionatzen duela eta betetzen dela gainbegiratzeko ardura ekimen botere eta kontrol botere autonomoak dituen Kooperatibako organo bati eman behar zaio, edo, bestela, pertsona juridikoaren barne kontrolen eraginkortasuna ikuskatzeko legezko funtzioa duen organo bati.</p> <p>Kooperatibak besteren kontura diharduten 250 lan bazkide baino gehiago ez baditu, Kontseilu Errektorearen esku utziko da funtzio hori.</p> <p>Kopuru hori gainditzen badu, ordea, organo espezifiko bat izendatu beharko da funtzio horiek bere gain hartzeko, zigor arloko araudian horrela ezarrita dagoelako.</p>

Xabie

Itziar





<p>AZKEN XEDAPENAK.</p> <p>HIRUGARRENA. Kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremu bat izateko baliabide espezifikokoak.</p>	<p><i>Gaur egun ez da existitzen, beraz gehitu egiten da.</i></p>	<p>Bat. Kooperatibak indarkeriarik gabeko lan eremuak edukiko ditu, non emakume eta gizonentzako berdintasun printzipioak errespetatuko diren.</p> <p>Bi. Kooperatibak sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokolo bat edukiko du. Protokolo horretan, sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruz aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduketak jasoko dira, eta behar diren bermeekin aplikatuko da.</p> <p>Hiru. Kooperatibak beharrezko prestakuntza eta informazioa eskainiko die bere lan bazkide guztiei eta besteren konturako langile guztiei, aipatutako eskubideak erabat errespetatu beharraz jabetu daitezzen.</p>
<p>AZKEN XEDAPENAK.</p> <p>LAUGARRENA. Kooperatibako langileen lansari muga.</p>	<p><i>Gaur egun ez da existitzen, beraz gehitu egiten da.</i></p>	<p>Kooperatibako soldatako langileek ezin izango dute jaso Kooperatiba honi aplikatu beharreko Ikastolen Lan Hitzarmen Kolektiboak lanbide jardueraren eta kategoriaren arabera ezartzen dituen ordainsarien ehuneko ehun eta berrogeita hamar baino gehiagoko ordainsaririk.</p>

Orereta/Errenterian, 2022ko otsailaren 10ean.

ARTEZKARITZA KONTSEILUA

